



ALKATETZAREN MEMORIA: 2022KO AURREKONTUA

2022. ekitaldiari dagozkion udal aurrekontuak onartzeko hezurmamitu den espedientean nahitaez sartu behar da Alkatetzaren Memoria hau, joan zen martxoan herriko alkate kargua hartu nuenetik idaztea tokatu zaidan lehena.

Memoria honen xedea da udal gobernu-taldeak 2022. ekitaldirako prestatu duen aurrekontuen zirriborroko partidarik esanguratsuenak banakatu eta argitzea, eta Alkatetzak gainerako udal talde politikoekin egin dituen negoziazioen berri ematea, aurrekontuak onets daitezzen.

Negoiazio hori, alde batetik, gobernu sozialistaren taldeak Udalaren eguneroko kudeaketa bultzatzeko duen borondatearen isla da, ahal den neurrian, Udal honetako oposizioko alderdi politiko guztiekin edo batzuekin akordioak eginez. Elkarrizketarako eta negoziatzeko jarrera, gobernu sozialistaren egunerokotasunean etengabea dena. Eta bestetik, negoziazio horrek, gutxiengoan gobernatzean dugula jakinda, datorren urterako Udal Aurrekontuak onartuko direla bermatzeko behar adinako laguntzak izateko premia logikoari erantzuten dio, horrela, gobernu-talde honek 2019an Eibarko Alkatetzara eraman zuen hiri-proiektuan aurrera egiteko funtsezko kudeaketa-tresna izateko.

Gainerako taldeek, akordio bidez, egindako ekarpenek beti aberastuko dute aurkeztutako zirriborroa, eta ekimenen inguruan beste ikuspegi osagarri bat emango dute, herria hobetzeko bidean eta herritarren bizi-kalitatean aurrera egiten lagunduko dute.

Hori guztia, gaur egun, COVID-19 pandemiak baldintzatzen duen testuinguru ekonomiko eta sozialean nahiz eta, zorionez, aurreko uneetan baino larritasun txikiagoarekin.

Aurreko ekitaldiko Aurrekontuen Zirriborroaren Memorian aipatzen zen bezala, pandemia honek aldaketa sakona eragin gure bizitzan, erabateko aldaketa ekarri du harremanak izateko eta bizi garen mundua ulertzeko moduan. Baretzetik urrun, seigarren olatuarekin jarraitzen du pandemiak, gure osasun-sistemari modu zuzenean eraginez, baina baita gaixotasunaren aurkako urte 2ko borrokaren ondorioz ahuldutako gizarte- eta ekonomia-sarean ere. Horregatik, 2022rako Aurrekontuek baliabideak bideratzen dituzte pandemiaren ondorioei aurre egiten jarraitzeko, haren eragina arintzeko eta sektore kaltetuenen egoera arintzeko. Horrenbestez, Udala, herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa, egoerak eskatzen duen mailan arituko da, eta, gainerako administrazio eskudunekin batera, garai zail hauetan behar den babesa ematen jarraituko du.



Horrela, joan den abenduaren hasieran Udal honetako gainerako talde politikoei aurkeztutako zirriborroaren arabera, 2022ko ekitaldiko aurrekontua 42.331.349,97 eurokoa da.

2021erako onartutako Udal Aurrekontuarekin (38.471.119,39 euro) alderatzen badugu 2022koak 3,8 milioi euroko igoera izan du termino absolutuetan, eta, ehunekotan hitz eginez, % 10eko igoera 2021ekoarekin alderatuta. Eta hori guztia, aurrekontua onesteko beste talde politiko batzuekin egin beharreko akordioen ondorioz 2022rako Udal Aurrekontuaren behin betiko zenbatekoa zuzenketa bidez handituko dela aurreikusiz.

Alde horretatik, aurreko ekitaldiarekiko nabarmen aldatu den aurrekontu-kapitulua Udal honen inbertsio errealak biltzen dituena da: 2021ean onartutako 4.071.995,51 eurotik 2022rako aurrekontuen zirriborroan proposatutako ia 6.683.682,11 eurora igaro da; beraz, % 64 inguruko igoera dakar.

Pandemia ahazteke, nahitaezkoa da herriak behar dituen eta herritarrek eskatzen dituzten inbertsioak egiten jarraitzea etorkizuneko Eibar horretara joateko, gobernu-talde sozialistak eraiki nahi duen hiri erosoago, seguruago, adeitsuago eta integratzaile horretara joateko.

Aurreko bi aurrekontuek, 2020koak eta 2021ekoak, pandemiak sortutako premia larriei erantzuteko funts-partida garrantzitsuak ezarri bazituzten ere, 2022ko ekitaldiak, lehenengo asteetan behintzat, oso bestelako testuingurua dakarkigu, ez pandemiarik gabekoa, baina, hala ere, egoerak okerrera egiten ez badu eta gaian dauden adituek huts egiten ez badute, tunelaren amaieran argi-bristada bat ikusteko aukera ematen du. Egoera horrek nolabaiteko normaltasun kutsua ematen dio 2022rako udal aurrekontuen errealitateari, eta, horri esker, aurrera egin daiteke aurreko paragrafoan aipatutako xedea lortzeko herriak behar dituen inbertsioak gauzatzeko bide horretan, izan ere, pandemiaren ondorioz eta udal funtsak premia larrienetarako birbideratzeko beharraren ondorioz, atzeratu egin behar izan ziren inbertsio horiek.

Udal gobernu honek urte bi eman ditu pandemiaren kontrako borrokari lehentasuna ematen eta pandemiak gure herriko familietan eta sektore ekonomikoetan izan duen eragina eta ondorioak arintzen, eta 2022ko kontuetan betidanik Udal honen ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratuko dugu eta herrian modernizazio- eta hobekuntza-plan garrantzitsuak berraktibatuko ditugu, betiere, osagai soziala ahultzeke, hau da, familia zaurgarrienak babestuz eta gure ehun ekonomikoari lagunduz, hurrengo ataletan zehaztasun gehiagorekin azalduko den moduan.

Horrela, gure hauteskunde-programak —Gobernu Plan bilakatua, Udal honetan gutxiengoan gaudelako— indarrean jarraitzen du, eta, nola ez, 2022an ere betetzen jarraituko dugu Eibar eraldatzeko eta herritarren bizitza hobetzeko xedearekin, xede argia eta irmoa. Halaber, eta bereziki 2022an, beste erakunde batzuekiko lankidetzari esker, abian jarri ahal izango dira Udalaren proiektuak, beste erakunde batzuen



laguntzarekin, edo Udalaren ekarpena eta lankidetzaz eskatzen duten beste erakunde batzuen proiektuak, guztiak ere asmo eraldatzailearekin.

Horri dagokiola, hiriarentzat berebiziko garrantzia duten gai bi aipatuko ditut.

Alde batetik, Next Funtsen bidez hirirako proiektu estrategiko bat gauzatzeko aukera emango duen Europako finantzazioa izango dut hizpide; gobernu-talde sozialista honen ibilbide-orrian beti egon den proiektua: Estaziño kaletik Azitainera doan trenbide-zatia estaltzea, trenbidearen gainean pasealeku bat sortzeko aukera emango duena, aisialdirako gune zabalak sortzeko, inguruko etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko eta hirigunera hurbiltzeko aukera emango duena. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu horren % 90 Europako funtsen bidez finantzatuko da, eta gainerako % 10a Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udalak finantzatuko dute, erdibana.

Eta, bestetik, gaurko egunez, Eusko Legebiltzarrean Debabarrena eskualdea berrindartzeko martxan dagoen Ponentzia; aurrera ateraz gero, finantzabide-iturri gehigarri bat izan liteke gure herrian garrantzi handiko proiektu traktoreak abian jartzeko, funtsezkoak enpleguari, ongizateari eta aberastasunari eusteko, bai gure hirian, bai eskualdean. Eta diodan bezala, Ponentzia horrek Eibarrentzako eta bere eskualdearentzako beste aukera berri bat irekitzea ekar lezake, eta Alkatetza honetatik, apalkiro, gure hirian pixkanaka-pixkanaka egiten ari garen lan eraldatzailearekin jarraitzeko aukera.

Hori guztia, herritarren parte-hartzea ahaztu gabe, auzo-bilerak eginez, abian jarri beharreko parte-hartze prozesuen bidez edo Udalean modu naturalean jasotzen diren proposamenak jasoz. Urrutirago joan gabe, aurrekoaren adibide garbi bat dugu indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPN) berrikusteko prozesua.

Gaur egun, "Aurrerapena" izeneko dokumentua ari da prestatzen, eta behin betiko dokumentua idazteko, herritarren ekarpenak behar dira. Horretarako, herritarrentzako arreta-bulego bat irekitzeaz gain, beharrezko diren zalantza eta galdera guztiak azaltzeko, Udala "Aurrerapena" dokumentuaren zirriborroaren ildo nagusiak azaltzen ari da herritarrei irekitako saioetan. Prozesu osoaren emaitza aberastu eta hobetuko duen parte-hartzearen eredu.

Eta azkenik, baina ez horratio garrantzi gutxiagokoa, gainerako udal taldeen ekarpenak.

Beraz, hona dakargun 2022ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborro honek, batez ere, proposatutako helburuak eta xedeak lortzeko esku artean ditugun baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eskatzen du, eta aurrekontu-zirriborro honen alderdirik funtsezkoenak hurrengo ataletan garatzen direnak dira.



DIRU-SARREREN KAPITULUAREN EGOERA

Aurretik, eta 2022. ekitaldirako aurrekontu-zirriborroan jasotako diru-sarreraren aurreikuspena xehatzen hasi baino lehen, Finantza-pasiboei buruzko 9. kapitulua aipatuko dut labur bada ere. Kapitulu horrek aukera ematen du, kreditu bidez, aurrekontuak behin betiko orekatzeko, eta, gure finantza-egoera orokorrari dagokion zorpetze arduratsu eta egokian oinarrituta, gure diru-sarreraren gaitasun garbiak egiten utziko lituzkeenak baino gastu eta inbertsio gehiago egiteko.

Zeharo funtsezkoa COVID-19 pandemia luze honen azken astinduei aurre egiteko eta herriaren egin beharrean dauden proiektu garrantzizkoei aurre egiteko, lehen esandako guztia lortzeko.

Beraz, aipatu berri dudan 9 Kapituluak kontuan hartzeke (7.531.594,96 eurokoa), 2022ko ekitaldi honetarako dugun diru-sarrera aurreikuspena 34.799.755,01 eurokoa da, eta 2021eko ekitaldiarena 32.028.896,84 eurokoa izan zen. Ekitaldi biak alderatzen baditugu, 2022an 2.770.858,17 euroko diru-sarrera igoera izango dugu 2021arekin konparatuta. Gehitze edo igoera hori, neurri handi batean —eta aurrerago azalduko den moduan—, Foru Funtzak 2022rako aurreikusitako igoeraren ondorio da, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako aurrekontuan agerian uzten den igoera.

Beste alde batetik, azpimarratu beharra dago Udalbatzak, Alkatetza honek hala eskatuta, duela hilabete batzuk berriro onartu zuela 2022. ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak izoztea. Udal zergen izozte berri horrek esan nahi du ez dela handituko gure herritarren poltsikoekiko presio fiskala, eta, aldi berean, Udalaren gobernu-taldeari eraginkortasun handiagoa eskatuko dio dauden baliabideen kudeaketan, aurrekontuan dagoen euro bakoitzari ahalik eta etekin gehiena ateraz.

Zazpigarren urtea da jarraian Alkatetza honek Udaleko gainerako alderdiei udal zergak izoztea proposatzen diena. Eta hori egin da, nahiz eta Udal Kontu-hartzailtzak, bere eskumenez baliatuta, zergak igotzea gomendatu, eta inguruko udalerrri gehienek 2022an udal tasak eta zergak gehitu.

Hala ere, Alkatetza honek uste zuen, egungo testuinguru ekonomikoan, beharrezkoa zela zergak izozten jarraitzea, eta horregatik proposatu zuen, Udalbatzak baietza eman.

Alkatetza honen aburuz, COVID-19ak sektore batzuetan (esate baterako, osasun-sektorean) duen eragin zuzenaz gain, pandemiak etxeko ekonomian eragiten du; 2008ko krisiaren ondorioetatik oraindik erabat berreskuratzeke dagoen banakako ekonomia. Eta horregatik, Udalak, azken urteotan, gure sentsibilitatea eta gure kezka erakutsi nahi izan dugu, Ordenantza Fiskalak izoztuta ondorio hori konpentsatuko duten neurriak hartuz.



Aurrekoaz gain, Memoria honek beste batzuetan islatu izan duen bezala, kontzienteki hartutako erabaki politikoek, eta, aspalditik Eibarko herritarren onurarako izan direnek —esate baterako, gure etxebizitzetan, fatxadetan, teilatuetan edo komunitateko edo erkidegoko igogailuetan egiten ditugun obra txikietan Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuestea—murrizketa ekartzen dute Udalaren diru-sarreretan, baina Alkatetza honek bidezkotzat eta egokitza hartzen ditu zerga-salbuespen horiek herritarren aldekoak baitira.

Ikuspegi kuantitatibotik, 2022ko ekitaldirako aurreikusitako diru-sarreretak gehikuntza edo igoera, funtsean, *Transferentzia arruntak* kapituluaren portaerari dagokio, eta, zehazki, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzari.

Gipuzkoako Foru Aldundiak udal diru-kutxari egiten dion ekarpen hori diru-bilketarako duen ahalmenetik dator; izan ere, aurreko ekitaldi bietan COVID-19a pandemiaren ondorioz izandako murrizketaren ondorioz, diru-bilketak berriro indarra hartu du, eta horrek ere bere eragina du lurraldeko udalerrietan.

Atal honetan, eta beti egiten dugun moduan, Foru Funtzak Gipuzkoako udalerrietzat duen garrantzia azpimarratu behar dugu, izan ere, gure herriko 2022rako aurrekontuan jasotako diru-sarrera guztietan duen eragina ekitaldi honetarako aurreikusitako diru-sarreraren % 50 baino handiagoa da.

Kuantitatiboki, aurreko bi urteetan kontzeptu horrek murrizketa handia izan bazuen ere, Udalak finantzatzeko Foru Funtzaren 2022rako banaketak (15/1994 Foru Arauaren arabera) Eibarko hiriarentzat 21.257.411 euroko diru-sarrerak aurreikusten ditu, eta sarrera horiek behar bezala islatu dira Aurrekontuaren 4. kapituluaren datu hori 2021eko ekitaldikoarekin alderatuz gero, Foru Funtza delakotik jasotzea aurreikusten den diru-sarrera gehigarria 2.706.141 eurokoa da, 2021ean Foru Funtz horren zenbatekoa 18.551.270 eurokoa izan baitzen.

6. kapituluari (Inbertsio errealak besterenganatzea eta bestelako diru-sarrerak) dagokionez, aurrekontuak aurreko ekitaldiko zenbateko bera aurreikusten du, 500.000 euro. Berriro ere, kontzeptu horiengatik diru-sarrerak aurreikusteko orduan, pandemia sortzen ari den ziurgabetasun-egoerak bultzatu du Udal honetako Kontu-hartzailtza arloa zuhur jokatzerara.

Era berean, zuzeneko diru-sarrerei buruzko 1. Kapituluari dagokionez (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio mekanikoko lbigailuen gaineko Zerga, Gainbalioa eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) 8 milioi eurotik gorakoa da (8.006.100 euro), eta jaitziera txiki bat izan du 2021eko aurrekontuarekin alderatuta.



Gainbalioari dagokionez, joan zen urteko urriaren 26an Konstituzio Auzitegiak emandako epaia aipatu beharra dago, zerga deuseztatu zuena eta estatu osoko udalak gainbalioa kalkulatzeko formula berriak aztertzer behartzen dituen, udalek bigarren diru-sarrera iturriaren ohiko kobrantza berreskura dezaten. Epaiak sortu duen ziurgabetasun-egoerak eta gure udal araudia emandako epaira egokitzeko beharrak hartararuta, kontzeptu horren diru-bilketaren aurreikuspenak azpikoz gora jarri dira. Horregatik, zuhurtasun-printzipioagatik, aurreko ekitaldietan baino apalagoak dira, egoera arautu eta normalizatu arte. Eta hori, bestela ezin zitekeen eta, aurrekontu-zirriborro honetan islatzen da garden eta zuzen.

Ostera, 3. kapituluari, Tasak eta Bestelako Diru-sarrerak izenekoan, igoera txiki bat izan da: 1.497.456 euro zeuden aurreikusita 2021erako, eta 1.529.809 euro 2022rako.

Azkenik, eta 2. kapituluari (Zeharkako zergak) dagokionez, % 100eko hazkundera izan da 2021etik, El Casco-ren obrarako aurreikusitako Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren ondorioz (500.000 euro).



GASTUEN KAPITULUAREN EGOERA

Lehenxeago aipatu den bezala, 2022 ekitaldirako Aurrekontua 42.331.349,97 eurokoa da, beraz, 2021erako onartu zenarekin alderatzen badugu, 3.800.000 eurotik gorako igoera.

Igoera horrek badu bere azalpena: inbertsio errealei eta ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuei dagozkien partiden igoera edo gehikuntza handia.

- Lehenengoari dagokionez, inbertsio errealak, 2021eko 4.071.995,51 euroen aldean, 2022rako aurreikusitakoak 6.683.682,11 eurokoak dira, hau da, % 64ko igoera. Lehen aurreratu dudan bezala, 2022ak —hasierako asteetan behintzat—testuinguru sozioekonomiko nolabait berezi bat dakarkigu, ez pandemiarik gabea, baina 2022rako udal aurrekontuen errealitateari halako normaltasun kutsu moduko bat ematen diona, hiriak behar dituen inbertsioak gauzatzen aurrera egiteko aukera ematen duena.
- Bigarren partidari dagokionez (ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak), kopuru hori 2020an hasieran onetsitako aurrekontua baino pixka bat handiagoa da, pandemiaren aurrekoa, alegia. Horrela, 2022rako partida horren aurrekontua 12.823.939,59 eurokoa da, eta 2021ekoa 11.069.600,66 eurokoa zen. Aurreko paragrafoan azaldutakoak, halaber, partida honek aurreko urtean baino igoera handiagoa izan duela justifikatzeko balioko luke.

Hori guztia, 2022ko ekitaldian zehar Errebaleko erabilera askotarako eraikin berriak bete-betean funtzionatuko duela ahazteke. Horrek esan gura du herritarrentzako azpiegitura berri bat jarri behar dela martxan, plaza estalia bera eta balio anitzeko espazio edo aretoak ez ezik, merkatuko plaza berria eta bi aparkaleku-solairu ere hartzen dituena, aparkaleku-solairu horietako bat txandakakoa izanik. Jakina, azpiegitura hori martxan jartzeak eta mantentzeak, beste urteetan ez bezala, funtsak erabili beharra eskatzen du, eta horrek, ezin zitekeen bestela izan eta, bere isla du ondasun arrunten eta zerbitzuen gastu-partidan.

Era berean, transferentzia arruntei dagokien partidaren murrizketa ere nabarmentzekoa da: 2021ean aurreikusitako 8.107.986,93 eurotik 7.460.724,85 eurora murriztu da 2022an. Murrizketa hori gertatu bada izan da 2022an ez dagoelako COVID-19a pandemiaren aurkako Talka Planik (aurreko bi ekitaldietan, 2020an eta 2021ean, ez bezala), zenbateko benetan handiak eskatzen zituena, eta haren funtsak, lehen azaldutako 2. eta 6. kapituluetan banatu dira nagusiki.

Azkenik, Alkatetza honek, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitakoa betez, langileen gastuen partida % 2 handitu du aurreko urtearekin alderatuta, eta 2021eko 13.886.986,29 euro haietatik 2022an 13.963.453,42 eurora igaro da. Horrek, termino absolutuetan, 76.000 euro baino gehiagoko igoera dakar.



ETORKIZUNeko EIBAR, NAHI DUGUN EIBAR HORI ERAIKITZEN JARRAITZEN DUGU

Lehen azaldu dudan bezala, gaur egun ezinbestekoa da herriak behar dituen inbertsioak egiten jarraitzea, herritarrek eskatzen dituzten inbertsioak, nahi dugun Eibar horretara iristeko, etorkizuneko Eibar horretara, gobernu sozialistaren taldeak eraiki nahi duen herri erosoagoa, berdeagoa, atseginagoa eta hiri-kalitate handiagokoa lortzeko.

Pandemiak hiriko familietan eta sektore ekonomikoetan zuen eraginaren aurkako borrokari lehentasuna eman diogun urte 2 horiek igaro ondoren, 2022ko Aurrekontuak aukera emango digu betidanik Udal honen ezaugarri izan den inbertsio-pultsua berreskuratzeko eta proiektu garrantzitsuak berraktibatzeke planak berriro martxan jartzeko, proiektu horiek, bai 2020an, bai 2021ean, neurri handi batean behintzat, atzeratu egin behar izan genituen-eta (salbuespen bat egin zen Errebaleko eraikin multifuntzionalarekin, hura amaitzeko eta martxan jartzeko gogor jardun ginen-eta). Hori guztia, osagai soziala ahultzeke, familia zaurgarrienak babesteko eta gure ehun ekonomikoari laguntzako emateko.

Proiektu horien artean bi nabarmendu nahi ditut, dauden kale eta auzoetako irisgarritasuna hobetzeko ezinbestekoak baitira: lehenengoa, Ubitxa eta San Kristobal kaleak lotuko dituzten igogailuak. Bigarrena, Mekola eta Arratebide kaleak zeharo irisgarriak izateko jarriko diren igogailuak. Bi jarduera horiei esker, Eibar guztiz irisgarria egiteko helburua lortzeko urratsak ematen jarraituko dugu, eta, hala, hiriko eremu horietako bizilagunen aurrean hartutako konpromisoak beteko ditugu, haiekin landu baititugu proiektu biak.

Jarduketa biak batuz gero, 2.600.000 eurotik gorakoa da zenbatekoa.

Gainera, 2022ko aurrekontuan beste jarduera garrantzitsu batzuk ere aurreikusten dira hiriguneetako irisgarritasunaren eta hobekuntzaren arloan. Horien artean, nabarmentzekoak dira Bustinduitarren kaleko espaloia 8 eta 20 zenbakien artean birmoldatzeari dagozkionak, (240.000 euro); Legarreko frontoia dagoen plaza zolatzeari dagozkionak, haren iragazgaiztasuna barne (180.000 euro), eta Tiburzio Anitua kaleko 20an dagoen plaza estaliari (73.000 euro). Horrela, kasu bietan, azpian dauden garajeek dauzkaten hezetasun-arazoak konponduko dira; Ziriako Agirre kaleko pegoren irisgarritasuna hobetuko da eta espaloia berrituko da (233.800 euro); Barrena kaleko azken zenbakietakoa ere (140.000 euro), eta Barakaldo kalea zabaldu egingo da 4. zenbakiaren parean (65.000 euro).

Era berean, hirigintza-berroneratzeko eragiketak egiteko eta laguntzeko partidak islatu dira; besteak beste, Arragueta kaleko 17 eta 19 zenbakietako eraispeneren kostua ordaintzeko partida esate baterako, Udalak modu subsidiarioan egin beharko lukeena (gaur egun oraindik ebatzi gabe dago), zeinari 180.000 euroko kostua kalkulatu zaion; 150.000 euroko partida industria-aurrien eraispenera diruz laguntzeko; fatxadak berriztatzeke eta igogailuak jartzeko auzo-erkidegoei edo komunitateei dirulaguntzak emateko islatutako 200.000 euroak ahazteke.



2022an zehar, gainera, obra garrantzitsuak egingo dira Eibarko ikastetxeetan. Horrela, Urkizuko ikastetxeko gimnasioa berriztuko da eta hango fatxada berritzen jarraituko da; San Andres eskolako patioan (frontoian eta harmailetan) obrak egingo dira; Arrateko Andra Mariko komunak berriztuko dira eta Orbea haurreskolako emergentziako eskailerak egingo dira.

Jarduketa horien guztien zenbatekoa 400.000 euro ingurukoa da.

Obra horietako batzuk mantentze-lan soiletik haragokoak dira, hori baita guri dagokigun eskumena, baina beharrezkotzat jotzen dut egitea, eta horregatik erantzungo diegu ikastetxe horien eskaerei, azaldutako moduan.

Eibarko ikasleek, gure haurrek, lortu nahi ditugun instalazio onenez gozatzeko aukera eduki behar dute.

Udal honetako beste sail batzuei dagokienez, azpimarratzekoa da Ingurumen Sailaren 2022. urteko aurrekontuaren hazkunde garrantzitsua, aurreko urtean 175.000 euro baino zertxobait gehixeago izatetik 663.590 euro izatera igaro baita; hau da, ia lauokiztu egin da, eta horrek agerian uzten du gobernu-talde sozialistak gure ingurunearekin eta hura zaintzeko beharrek duen konpromisoa.

Aipagarria da, halaber, euskara sustatzeko partida aurreko urtean baino 100.000 euro gehiagorekin handitu izana; Udal Euskaltegirako partida kontuan hartuz gero, aurrekontua milioi bat euro ingurukoa da.

Aipamen berezia merezi du du gizarte-babeserako sistemarako aurrekontuak: udal arlo honetako programa guztiek 4,25 milioi euroko zenbatekoa gainditzen dute, eta ia 1,5 milioi jartzen dira baliabide gutxien dituzten familia eta taldeentzat (diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenentzat, langabetuentzat eta baliabide gutxiko pentsiodunentzat...).

Atal honetan, azpimarratu behar da eskualdeko arretarako "neguko aterpetxea" jarri dela abian Karmen kaleko Karmeldarren Elizari itsatsitako eraikinean, udal gobernu-talde sozialistak eskualdeko gizarte-zerbitzuen mapa gauzatzeko egindako apustua, Debabarrena eskualdeko udalerrri guztiek finantzatua. Era horretan, Eibarrek aurrerapausoa eman du eskualdeko udalerrri guztiek hain beharrezkoa duten zerbitzua bultzatuz.

Berdintasun Arloko Aurrekontua, Udaleko beste arlo batzuetakoekin alderatuz gero (272.954,53 euro) txikia dela iruditu arren, aurten 40.000 euro inguru igo da 2021ekin alderatuz, eta kopuru hori handitzen duten hainbat eta hainbat emakumeren lanak bere saria jasoko du 2022an haiekin hartutako konpromiso bat gauzatzen denean: Andretxea berria, Astelena frontoiaren ondoan.

Garapen Ekonomikoaren Arloko programetara zuzendutako aurrekontuari dagokionez, zenbateko osoa 3.239.104 eurokoa da, eta berrikuntza garrantzitsuak ditu; besteak beste, enpresa-proiektu berriak garatzeko laguntza-programa, hutsik dauden merkataritza-lokalak erabiltzeko dirulaguntzen lerroa eta enplegurako orientazio-bulegoa.



Atal honetan azpimarratzekoa da Eibarko Udalak egindako inbertsioa, Debarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartearen (DEBEGESA) egoitzan enpresa-inkubagailu berri bat egiteko. Proiektu horretan, Eibarko Udalak kostu osotik (250.000 euro) 220.000 euro inguru inbertitu ditu, hau da, Udalak proiektuaren kostuaren % 90 jarri du. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta DEBEGESAk 15.000 euro inguru eman dituzte, hurrenez hurren. Memoria hau idazteko unean, ez da inauguratu, baina laster jarriko da martxan.

Aparteko aipamena merezi du Arantxa Tapia Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuak duela aste batzuk jakinarazi zuen albisteak: Eusko Jaurlaritzak 16.000.000 euro inguru inbertituko dituela Erisonoko industrialdea edo poligonoa handitzeko, Sprilurren jabetzako lurretan. Proiektu hori 3 fasetan gauzatuko da eta 6 eraikin izango ditu. Erisono Poligonoa handitzeko asmoa aipatu Sailak egindako gogoetaren ondorio da, Eibarri industria-proiektuak finkatzeko behar duen industria-lurzoria eman behar zaiola berresteko joan den ekainean Alkatetza honek eskatuta sailburuarekin izandako bileraren ondorioz egindako gogoeta.

Hori guztia, kirolaren eta hiriko kirol-kluben alde egiten dugun apustua ahazteke eta gure gizartean funtsezkoak diren kolektiboek behar duten arreta bazterrean uzteke, hala nola haurrak eta gazteak; edo kulturari ematen diogun laguntza, programa aberatsa, askotarikoa, modernoa eta, batez ere, kalitatezkoa eskainiz.

Eta oso kontuan izanda gero eta handiagoa dela hirigunean aisialdirako eta egoteko leku berriak sortzeko herritarren eskabidea, Alkatetza honen ikuspegiarekin bat datorrena, eta 2022an zehar aurrera egiten jarraitu beharko dena: Eibar, pertsonen alde eta pertsonentzat.



NEGOZIAZIOA UDAL TALDEEKIN

Memoria honen hasieran adierazten nuen bezala, Alkatetza honek jakin badaki gutxiengoan gobernatzen duela eta, hortaz, ezinbestekoa duela Udalaren beste indar politiko batzuekin akordioak lortzea 2022. urteko Aurrekontuaren onespena bermatzeko. Nolanahi ere, azaldutako arrazoiaz gain, Alkatetza honek uste osoa du gainerako talde politikoekin egindako akordioek, egin ahal diren guztietan, udal kudeaketa hobetzeko balio dutela. Eta hori aurrekontuetara ere heda daiteke, Alkatetza honen iritziz, lehendik ere herriarentzat ona zen dokumentu bat aberasten duten ikuspegia eta ideiak biltzean.

Ildo horretatik, 2022ko aurrekontua onartzeko Udaleko gainerako alderdi politikoekin izandako negoziazioen edukia zehaztuko dut, eta Memoria hau idazteko unean horren inguruan lortutako akordioak.

ELKARREKIN PODEMOS-EIBAR

Alderdi horrek 623.000 euroko zuzenketa partzialak aurkeztu zituen, garbiketaz-zerbitzua Udalean txertatzeko eskaeraz gain.

Alde biak ahalegindu badira ere, ezinezkoa izan da bi taldeen arteko akordioa lortzea.

Nolanahi ere, hurrengo ekitaldietan aurrekontuen aldeko haren botoa izango dugulakoan nago, 2020an gertatu zen bezala.

EIBARKO EH BILDU

Alderdi horrek osoko zuzenketa aurkeztu zuen, bai eta 3.412.000 euroko osoko zuzenketa partzialak ere.

Alde biak ahalegindu arren, ezinezkoa izan da bi taldeen arteko akordioa lortzea.

Nolanahi ere, hurrengo ekitaldietan aurrekontuen aldeko haren botoa izango dugulakoan gaude.

EIBARKO EAJ-PNV

Alderdi horrek 2.328.000 euroko zuzenketa partzialak aurkeztu zituen hasiera batean. Negoziazio-prozesu sakon baten ondoren, Eibarko EAJ-PNV eta gobernu-talde sozialista hau akordio batera iritsi dira eta akordio horri esker bermatzen da onartuko dela 2022ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa, gobernu-talde honek hasieran aurkeztutakoa, lortutako akordiotik eratorritako ekarpenekin batera.



Sinatutako akordioaren arabera, Eibarko EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du 2022rako udal aurrekontuaren zirriborroaren aldeko botoa emango duela, eta lortutako akordioan jasotako jarduerak betetzeko beharrezkoak diren kreditu-aldaketen aldeko bozka emango duela.

Esan dezaket, uste osoarekin esan ere, gobernu-talde sozialistak hasiera batean aurkeztutako 2022ko ekitaldirako aurrekontuen zirriborroa akordioaren aurretik ere bazela ondo pentsatutako eta diseinatutako tresna; tresna bat talde horrek eibartarrekin hartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko; hiria modernoagoa, atseginagoa eta iraunkorragoa izan dadin ahalbidetzeko; eta bertan lan egin ahal izateko eta are kalitate handiagoko familia- eta gizarte-bizitza garatzeko.

Eta esan dezaket ere Eibarko EAJ-PNVrekin adostutako udalekintzaren hainbat arlotako ekintza- eta ekimen-multzo horrek aberastu egiten duela gauzaten ari garen hiri-proiektua.

Asko dira 2022. ekitaldirako aurrekontuen zirriborroak bere baitan hartzen dituen proiektuak. Sail bakoitzeko arduradun politikoak eta udal langileak gidatzea espero dut, 2022rako aurrekontuen zirriborro honetan babes ekonomikoa jasotzen duten asmo handiko eta ilusioz betetako proiektu horiek guztiak arrakastaz gauzatu eta, egunez egun, proiektuz proiektu, aurrera egin dezaten, bizi izateko Eibarrik onena eraikitzeko.

Eibar, 2022ko otsailaren 8a.

ALKATEA

JON IRAOLA IRIONDO